


EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDE AURRERAPENA

EAEko ekonomia %2,8 hazi zen 2018ko bigarren hiruhilekoan

Barne produktu gordinaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek aurtengo bigarren hiruhilekoaren kontu ekonomikoen aurrerapena argitaratu du. Estatistika horren arabera, EAEko barne produktu gordina %2,8 handitu zen urte arteko terminoetan. Tasa hori lehen hiruhilekoan lortu zen balio bikainetik hiru hamarren beherago dago. Moteltze hori aurreikusita zegoen Eusko Jaurlaritzaren taula makroekonomikoan, baina apaltzea espero zena baino zertxobait biziagoa izan da. Hain zuzen ere, aurreikuspenak %2,9an kokatu zuen bigarren hiruhilekoaren gehikuntza. Hala eta guztiz ere, EAEko ekonomia-aren aldakuntza tasa oraindik bizia da. Hiruhileko arteko terminoetan, bigarren hiruhilekoak %0,6ko tasa jaso zuen, lehenengoak baino bi hamarren gutxiago.

Barne produktu gordinaren bilakaera


Hiruhilabete arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Enpleguaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa




Eskaintzaren ikuspegiak hiru sektore nagusiek bizi duten une gozoa baieztatzen du. Halere, kontu ekonomikoen aurrerapenak adierazten du industriaren eta zerbitzuen hazkunde erritmoa lehen hiruhilekoko baina zertxobait motelagoa izan zela.

BPGaren apaltzea ez da osorik igaro enpleguaren alorrera, bigarren hiruhilekoan %2,1 hobetu baitzen, Eustaten estatistika horrek seinatu duenez. Lehen hiruhilekoko emaitza baino hamarren bat txikiagoa izan arren, tasa hori eta aurreko sei hiruhilekoetan eskuratutakoak oso antzekoak dira. Beraz, enplegua sortzeko orduan egonkortasunak jarraitzen du. Azken urtebetean, EAEko ekonomiari 19.500 lanpostu garbi inguru erantsi dizkio. Kasu horretan, lortutako hazkunde tasak hamarren batean gaingitu du Eusko Jaurlaritzak epealdi horretarako aurreikusi zuena (%2,0).

Enpleguaren bilakaera

Hiruhilabete arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.